



Zebarri

Mallabiko Udal Aldizkaria

5 zeb. 2009ko ABENDUA

2010urteko Udal aurrekontuak



Mallabiko Zerbitzu sozialen inguruko inkestaren emaitzak

Daukagun Ongizate Sailaren zerbitzua hobetzeko asmoz inkesta bat egin zan eta bere ondorioak 2009ko lehen hiruhilabeteen jaso genduzan.



Gipuzkoako zaborra ez da BETEARTEko zabortegira etorriko

Pozik gaude lortutako konpromisoarekin, oraingoz ez ditue Mallabian Gipuzkoako basurak botako.



LABURBILDUTA, HAINBAT BARRI:

ELIZOSTE ETA PARKEKO LANAK • UDAZKENEKO EURI JASAK SORTUTAKO KALTEAK • ITELAZPIK LTD SEINALEA BANATZEAREN ARDURA HARTUKO DAU • ASUNTZA-DONAGARAI-EGIA BASO-PISTA • ZER EGINGO DUGU TXAKURREN JABEEKIN?

Sarrera



Urte oso bat ez dugula kaleratu “Ze barri”. Arrazoi ezberdinak izan dira hau posible egin dutenak baina nagusiena jasaten ari garen krisiak gerrikoa estutzera bahartu gaituela izango litzateke.

Krisi hau izan da ere Osma auzoan ur munizipalaren sarea eraikitzeko bigarren fasea ez burutzearen arrazoia, Areitioko bazelizaren inguruko lurrak ez erostea bertan atsedean leku bat eraikitzeko, Kalbario kaleko etxe tasatuen geldiaraztea, parkean oraindik komun publikorik ez egotea,... garbi dago Krisi honek guztion artean eragina euki duela.

Beste hainbat ekimen martxan jarri dira eta burutu: Arandoñoko auzo-bidea eta kaskotik Areitiora doana berritu, futbito zelaia estali, eguzki plakak eskoletan jarri, parkeko zolua berritu, gimnasioa martxan jarri frontoian, frontoiko uren arazoei nolabaiteko konponbidea eman, Gereako lur jauzia konpondu, Elizoste kalean eskatu duten komunitateak igogalua jartzeko eta aparkamendu gehiago lortzeko egokipen lanei hasiera eman zaie,...

Ale honetan ezagutuko dituzue datorren urterako asmoak, 2010eko aurrekontuen nondik norakoak. Baina kezkatzen gaituena krisiak Mallabiko herritarren artean izango duen eragina da, zenbat mallabitar lanik gabe gera daitezkeen urrengo urteetan. Bizi iraupeneko aurrekontua da datorren urtekoa eta bitartekorik gabe zaila da burutzeko asmoa genituen ideiak aurrera ateratzea. Saiatu gara tasak munizipalak bere horretan mantentzen, tasa guztiak. Eta hau izan da gure lehentasunik nagusiena mallabitar askoren egoera ikusirik tasen presio ekonomikoa arintzeko asmoz.

Hala ere ahal den aurrekonturik txukunena ateratzea lortu daugu eta Udalletxeko gastu korrienteaz aparte hainbat proiektu aurrera atera ahal izango dira: auzoen sarreretan panelak jarri baserri ezberdinen izenekin, Kalbario kaleari txukundu bat emon, konpondu udazkeneko euri jasa haundiak auzo-pistetan egindako kalteak, jarri postontziak falta diren auzoetan, In-txaurtiko etxeen aurrean dagoen plaza konpondu bertan haurreskolako umeek jolastu ahal dezaten,...

Ez dugu miraririk espero datorren urterako, mallabitar arruntentzat krisi egoera bere gordintasunean jarraituko du eta egoera honek markatuko du datorren urteko ildo gure udalean eta udalerrian ♦

Gipuzkoako zaborra ez da **BETEARTE**ko zabortegira etorriko

Ezaguna da Gipuzkoako lurraldeak daukan arazoa zaborraren kudeaketarekin: bertako isurtegiak itxita edo ixteko puntuan dagoz. Gipuzkoatik Bizkaira urtero 25.000 tona zabor garraiatzen dira gitxi gora behera eta datorren urteetan posible da zabor garraio hau ugaritzea.

Gipuzkoako zaborrak Bizkaiko Igorre, Jata eta Ortuella-ko zabortegietara garraiatzen dira. Gaur eguneko martxan Igorrekoa bi urtetan lepo egongo da eta Bizkaian be arazoa gehituz joango da.

Mallabian "hondakin ez arrisksuak" isurtzeko baimena daukan Iruatxetako zabortegia eraiki da azken urte hauetan Areitioko mendatean, BETEARTEk bultzaturik -gerora ABGk xurgaturikoa-. Hasiatik Mallabiko herrian egonezina sortu izan daben isurtegia da hau, bertako baimen eta lizentzia guztiak lortu zituelako - udalean ezker abertzalea ez egoenean ordezkaturik apartheida medio- eta proiektu guztia isiltasuna eta datu izkutaketarekin inguratuta egin zalako. Irailaren 8an, jaso genduen udalean Gipuzkoako hiri hondakinak bertan isurtzeko proposamena EKONOR (FCC) enpresako ordezkari ezagun baten ahotik. BETEARTEn hiru bazkide dagoz: EKONOR, URBASER (ACS) eta BEFESA.

Elkarrizketan EKONOReko bitartekari honek esan eban honetarako ez dagoela inolako arazo teknikorik ez legalik. Hainbat gestio egin izan direla Jaurlearitzarekin eta baimena emango leukiokela Betearteri zabor horiek bertan botatzeko. Iruatxetan hiri hondakinak isurtzeko jadanik lau urtetarako akordioa be egingo gongo zala Gipuzkoak hiru lau urtetan bere problema konponduko ebalako. Aurreakordioa dagoela Foru Aldundia bien eta Betearteren artean hau burutzeko-eta hondakin hauek hemen, Igorren eta Jatako isurtegien artean banatzeko.

Irailaren 22an BETEARTEko zuzendariaren eskutitz bat jasotzen genduen eta horren bitartez jakin arazi euskuen ukatuko egingo direla isurtegi hau moldatzera Hiri hondakinak jaso dagizan.

Urriaren 1ean, Udaleko Osoko Bilkurak berretsi eban moduan, gure mezua ozen eta garbi adierazten dogu, alde

batetik, EKONOR, URBASER eta BEFESA enpresei: **krisia dala eta, orain hondakin industrialak gitxitzen ari direnean ez dogu onartuko Mallabiko isurtegiari hiri hondakinak sartzerik, orain hau dalako negozioa.** Eta ez dogu onartzen, **bertako lizentzia hondakin industrialetarako emonda dagoelako, osasun arazoak egon leitezkeelako bere kokapenagaitik** (herri gunetik 500 metro eskasetara dago), **eta gure bizi kalitatea zeharo kaltetuta izango zalako.**

Beraz enpresa pribatua danez exijitzen deutsegu Betearte osatzen daben hiru enpresa hauei esateko argi eta garbi euren isurtegi honetan ez dala hiri hondakinik onartuko. Eta guri, udalari, konpromisoa idatziz emon daiguela argi eta garbi jarriko azalduaz ez orain eta ez hurrengo urteetan ez dala onartuko isurtegi horretan hiri hondakinik. Mallabitar guztion osasuna gitxi batzuen negozioen gaitetik dagoelako.

Bestalde, Foru Aldundiari eta Jaurlearitzari adierazi nahi geuntzan badakigula zer arazo dagoen hiri hondakinekin Gipuzkoako lurraldean batez be. Kontuan hartu dagiela zaborrarena bai dala guztioi ikutzen gaituen arazoa. Beraz hainbeste diru gastatzen ari direnean gitxi batzuei mesede egingo deusien makroproiektu erraldoi batzuetan, AHT bezalakoan adibidez, dirurik ez dagoenean ez udalean, ez Diputazioan eta ezta Jaurlearitzan be; gastatu dagiela dirua benetan guztiok afektatzen gaituen benetako arazoak konpontzen. **Bultzatu dagiela eta lagundu dagiela Usurbilen burutzen diharduten moduko atez ateko bilketa beste udalerrietan be, herri honetan izandako emaitzak benetan arrakastatsuak diralako.**

Urriaren 2an, Bizkaiko Batzar Nagusietan prentsaurreko bat eskaini genduen ezker abertzaleko udal kideek eta bertan, bilkuran esandakoa errepikatu zan. Oihartzuna izan eban prentsaurreko honek, eta guzti honen ondorioz urriaren 7an ailegatu zan udaletxera idazkia hiru enpresak sinatutako konpromisoarekin: ez ebela hiri hondakinak botako Betearteren isurtegiari.

Pozik gaude lortutako konpromisoarekin, oraingoz ez ditue Mallabian Gipuzkoako basurak botako.



BETEARTE no recibirá residuos urbanos de Gipuzkoa

25000 toneladas de residuos urbanos procedentes de Gipuzkoa se vierten en vertederos vizcaínos porque los vertederos de Gipuzkoa están saturados.

La corporación que se creó entre el 2004-2007, de la cual la izquierda abertzale fue excluida, gestionó la conversión del viejo vertedero del alto de Areitio a vertedero de residuos industriales.

El 8 de septiembre un intermediario de la empresa de Ekonor nos trae la proposición de verter residuos urbanos gipuzcoanos. Nos dice que no habría problemas legales y que ya hay un

preacuerdo con las diputaciones. Se le contesta que de ninguna manera se acepta dicha proposición.

Empezamos las gestiones para conseguir el compromiso de las empresas socias de Betearte para que no se reciban residuos urbanos en el vertedero de Areitio.

El 22 de septiembre recibimos el primer escrito con el compromiso de que no admitirán las basuras de ningún sitio firmado por el director de Betearte. Se le responde que no es suficiente garantía y que queremos el compromiso de las tres empresas socias.

El 1 de octubre se realiza un Pleno en el cual por unanimidad se acuerda que está corporación no admite la proposición de Ekonor.

El dos de octubre denunciamos en rueda de prensa en las Juntas Generales de Vizcaya las intenciones de Ekonor y las dos Diputaciones. En la misma les exigimos a las Diputaciones que hay otras maneras de gestionar las basuras, que existen experiencias que lo demuestran.

La rueda de prensa tiene mucha repercusión y el siete de octubre recibimos por fin el compromiso escrito de las tres empresas socias en el que se comprometen a no admitir residuos urbanos en el vertedero de Betearte.

2010urteko UDAL AURREKONTUAK

2010eko AURREKONTUA	SARRERAK/ INGRESOS
Zuzeneko zergak/ impuestos directos	461.000
Zeharkako zergak/ impuestos indirectos	60.000
Tasak eta bestelako sarrerak/ tasas y otros	669.150
Transferentzi arruntak/ transferencias corrientes	850.725
Ondare-sarrerak/ ingresos de patrimonio	4.000
Capital transferentziak/ transferencias de capital	120.000
Finantza pasiboak/ pasivos	181.000
GUZTIRA/ TOTAL	2.345.875

2010eko AURREKONTUA	GASTUAK/GASTOS
Goi-karguak/ altos cargos	100.550
Administrazio orokorra/ administración general	534.630
Gizarte ekintza/ acción social	162.400
Osasuna/ salud	10.100
Hezkuntza/ educación	81.300
Hirigintza/ urbanismo	336.850
Ur saneamendu, hornikuntza eta banaketa saneamiento, abastecimiento y reparto de agu	308.000
Hondakinen kudeaketa eta bide garbiketa gestión de residuos y limpieza de caminos	256.225
Kultura/ cultura	250.770
Kirolak/ deportes	78.950
Errepideak/ caminos	56.000
Administrazio publikoei transferentziak transferencias a la administración pública	52.100
Zor publikoa/ deuda pública	118.000
GUZTIRA/ TOTAL	2.345.875

Egitekoak diren lanen artean zeintzuk dira azpimarragarrienak:

- Kalbarixo kalea urbanizatu
- Intxaurtiko parkean aterpe txiki bat eraiki.
- Postontziak falta diren auzoetan, hauek jarri (Arandoñon, Goitan eta Beranon)
- Auzoetako panel informatiboak, non dauden baserriak mapetan jarriaz.
- Bizkaiko haziendak dirua badauka, Foru Aldundiak jada onartuta daukan Donagaraitik Asuntzara doan baso-pista.

Zer eduki behar izan dugu kontua aurrekontu hauek egiterakoan:

- 2009. ekitaldian 2.269.210,00 €tako sarrera arruntak aurreikusi ziren, 2010. ekitaldian berriz 2.048.375,00 €; hau da, 220.835,00 € gitxiago.
- 2008an herritarrek udalarekin egindako zorrak 60.000€ izan ziren, 2009an 82.000€ izango dira.
- 2009. ekitaldian 1.817.110,00 €tako gastu arruntak aurreikusi ziren, 2010. ekitaldian berriz 1.811.245,00 €; hau da, 5.865,00 € gitxiago.
- Udalkutxa aldetik be nabarmena izan da jaitsiera. 2008. urtean 895.000,00 € emon euskun Foru Aldundiak; 2009. urtean 861.000,00; eta 2010. urtean 781.400,00 €. 2008tik 2010era 113.600,00 € gitxiago.

Eta jaitsieraz aparte, 2009. urteko udalkutxaren likidazioa negatiboa izango dala aurreikusi dau Foru Aldundiak. Aurreikusitako kopurua 220.103,00 € dira. Kopuru hau udalak bueltatu beharko deutso Foru Aldundiari 2011-2013 urteetan zehar.

- Nahiz eta udalari Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte ekin-tzetarako laguntza %16an murriztu guk igotzea nahi genduen (14.560€ igo dogu).
- Beste aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiak 2010. urterako diru-laguntzak (subentzioak) kendu ditu. Irisgarritasunekoak edo akzesibilitaterakoak, ur hornikuntzetarakoak eta auzo bideak konpotzeko laguntzak esate baterako desagertu egin dira.
- Prestamoa eskatuko da honi aurre egiteko.

Qué se ha tenido en cuenta al confeccionar los presupuestos del 2010:

- Los ingresos corrientes que se esperaban para el año 2009 eran 2.269.210€, para el 2010 se esperan 2.048.375€. Esto es, esperamos ingresar 220.835€ menos.
- El 2008 hubo una morosidad de 60.000€, este año finalizará con una morosidad del 82.000€.
- Del 2009 al 2010 se bajará el gasto corriente en 5.865€.
- Udalkutxa (Diputación) ha bajado la asignación a los Ayuntamientos en los últimos años porque ella recauda menos. En concreto a Mallabia el 2008 le dio 895.000€, el 2009 le ha dado 861.000€ y el próximo año le dará 781.400€. En dos años 113.000€ menos.
- Diputación ha suprimido las ayudas para obras de abastecimiento de agua, para arreglo de pistas municipales y para obras de accesibilidad. Esto por ahora.
- Para poder llevar adelante estos presupuestos tenemos que pedir un préstamo.

Ondorengo taulan azken hiru urteetako gastuen konparaketa dozue. Diru gitxiago jasotzen bada ekimen gitxiago burutu leitezke.

		2007	2008	2009	2010
110	Goikarguak	114.400	115.900	104.600	100.550
120	Administrazio orokorra	493.225	465.100	529.900	534.630
313	Gizarte ekintza	113.800	138.600	147.840	162.400
412	Osasuna	8.400	8.400	8.900	10.100
420	Hezkuntza	63.500	544.500	440.500	81.300
432	Hirigintza	552.650	739.500	428.850	336.850
441	Ur saneamendu, horniketa, banaketa	106.000	311.000	216.000	308.000
442	Hondakin kudeaketa, bide garbiketa	160.000	214.500	264.600	256.225
443	Hilerriak, zerbitzuak	4.120	64.750	-	-
451	Kultura	215.390	249.490	265.370	250.770
452	Kirolak	1.207.200	143.411,5	74.650	78.950
511	Errepide, auzo-bide, hiribideak	18.000	90.000	6.000	56.000
910	Administrazio publikoei transferentziak	81.000	70.000	53.000	52.100
01	Zor publikoa	225.000	202.000	200.000	118.000
	GUZTIRA	3.377.685	3.357.151	2.740.210	2.345.375

Mila esker

Mallabiko kultur giroa aberasten laguntzen dozuen guztioi: Maiatzeko hamabostaldi kulturala, Andamarixek, Urriko jaiak, Olentzero kantuan, Gaztainaerre, Santa Ageda, asto-probak, txistularien eguna, udaberriko konzertuak, Biarko Izarrak, Gazte eguna, zinea, Futbito eta saski baloi erakustaldiak, pilota eta pala partiduak, hitzaldiak, Gabonetako ikuskizuna, ferixa, korrika, baselizen ibilbidea, herri bazkari eta afariak, herrikirol erakustaldiak, auzoetako jaiak. . .

Mila esker hau posible egiten dozueneroi: Futbito taldea, Jasokunde eta Mendibil abesbatzak, Orraitio, Pelota taldea, Jubilatuen elkarteak, Txondor, Izar Gorri, AEK, auzoelkarteak. . .






Mallabiko Zerbitzu sozialen inguruko inkestaren emaitzak

Daukagun Ongizate Sailaren zerbitzua hobetze-ko asmoz inkesta bat egin zan eta bere ondorioak 2009ko lehen hiruhilabeteen jaso genduzan.



Inkesta EDERi enkargatu eutsien eta parte hartu eben Mungialdea, Busturialdea eta Uribe kostako lurraldeak; baita Hernani, Zumaia, Pasaia eta Mallabiko herriek.

Nahiz eta ale honetan tauletaz aspertuta egongo zarien dagoeneko, merezi dau gain begirada bat emotea ondorengoei harro egoteko moduko emaitzak emon deuskuez eta.

Pertsonala: hemen bezeroek jasotzen daben tratu, informazioa konfidentzialtasuna eta bezero bakoitzari ematen deusan denbora bere arazoari trataera emoteko aztertzen da. Emaiza bikaina jaso dau arlo honetan gure Ongizate sailak. Zorionak bertako langileari!!!



Instalakuntzetan kokapena, akzesibilitatea eta instalakuntzak aztertu dira. Hemen izan doguz emaitzarik okerrenak, batez be akzesibilitatean mediatik oso behera gagozelako. Ez da harritzekoa daukagun sarrerarekin eta barruan dagoen espazioa kontuan hartuta pentsatzen badogu ezindu bat zelan ibili behar daben bertan. Dagoeneko aztertzen ari gara beste lokal batzuk prestatzea eginkizun honetarako egokituta egongo direnak ezinduek oztoporik izan ez dagien.





Helburuen lorpenak aztertzerakoan, bezeroak jasotzen daben laguntza, bere beharrak eta eskatzen dabenaren arteko egokipena aztertzen da. Baita ematen diren laguntzen jarraipena eta bezeroak laguntza jasotzen dabenetik bere egoeraren hoberakuntzaren jarraipena be. Arlo honetan mediaren gaintetik gagoz.



Helburuen lorpenak aztertzerakoan, bezeroak jasotzen daberen laguntza, bere beharrak eta eskatzen daberen arteko egokipena aztertzen da. Baita ematen diren laguntzen jarraipena eta bezeroak laguntza jasotzen dabenetik bere egoeraren hobekuntzaren jarraipena be. Arlo honetan mediaren gaitetik gagoz.

E5. SATISFACCIÓN GENERAL CON LA ORGANIZACIÓN INTERNA





Azken taula honetan aztertzen da zelan egokitzen diren eskeinitako zerbitzuak bezeroaren beharretara; bezeroari eskaintzen jakon informazioaren kantitatea eta kalitatea; eta azkenik emondako zerbitzuak ematen deuson konfidantza zerbitzuen erabiltzaileari.

Gustora geratu gara inkestak eskaini deuskuzan emaitzekin baina zer hobetu be garbi azaltzen da inkesta berean. Espazioa eta akzesibilitatea dira ahal dogun bezain laster konpondu behar ditugun arazoak. Bestalde, daukaguzan bitartekoekin Ongizate Saila egiten dabiren lanak ez dauka meritu gitxi. Jarraitu holan lanean!!!

Langabetuak Mallabian

Iazko irailetik aurtengora langabe kopurua %100 hazi da. Egoera gero eta larriagoa da adinean gorantz jotzen dogun neurrian. Gero eta nagusiagoak, gero eta arazo gehiago lana aurkitzeko.





Langabetuak Durangaldean

Durangaldea da Krisi ekonomikoak gehien astindu daberen eskualdetariko Bizkaian. Gure egoera Durangaldekoa baino zeozer hobetxoagoa da, 2 puntu azpitik gagoz.

Langabetuak Bizkaian

Bankuei diru publikoa utzi deustie ekonomia berpizteko, lantegiei zergak gitxitu deustiez eta laguntza ezberdinak eskeini eutsi dagioen egoerari. Guri bankuek ez deuskue fidatzen eta erakundeek %16 gitxitzen deuskue laguntza soziala. Langileak ez dira ba ekonomiaren motorrak?



Langabetuak EAEn

Bankuek irabaziak eukitzeari ez deustie inoiz itxi. Gobernuak dino ekonomiaren susperraldia hasi dala. Langabe tasa geratu barik igotzen ari da eta egoera bere onera ez da berehala etorriko.

LANGABETUAK ADIN TALDE ETA SEXUAREN ARABERA

		< 25 urte baino			25etik 34 urtera			35etik 44 urtera			> 44 urte baino			GUZTIRA			TASA
HIRUHILABETEA		3.-08	3.-09	%	3.-08	3.-09	%	3.-08	3.-09	%	3.-08	3.-09	%	3.-08	3.-09	%	3.-09
MALLABIA	Gizonak	0	2	...	3	9	200	4	7	75	5	12	140	12	30	150	
	Emakumeak	0	2	...	6	10	66,7	7	13	85,7	6	10	66,7	19	35	84,2	
	GUZTIRA	0	4	...	9	19	111,1	11	20	81,8	11	22	100	31	65	109,7	%10,67
DURANGALDEA	Gizonak	117	257	119,7	323	728	125,4	238	566	137,8	277	589	112,6	955	2.140	124,1	
	Emakumeak	90	199	121,1	363	641	76,6	376	674	79,3	504	730	44,8	1.333	2.244	68,3	
	GUZTIRA	207	456	120,3	686	1.369	99,6	614	1.240	102	781	1.319	68,9	2.288	4.384	91,6	%12,7
BIZKAIA	Gizonak	2.180	4.014	84,1	5.139	9.468	84,2	4.643	8.210	76,8	8.057	11.363	41	20.019	33.055	65,1	
	Emakumeak	1.496	2.667	78,3	6.050	8.613	42,4	6.889	9.354	35,8	11.396	13.785	21	25.831	34.419	33,2	
	GUZTIRA	3.676	6.681	81,7	11.189	18.081	61,6	11.532	17.564	52,3	19.453	25.148	29,3	45.850	67.474	47,2	%12,99
E.A.E	Gizonak	3.950	7.409	87,6	9.348	17.433	86,5	8.257	14.874	80,1	13.712	20.492	49,4	35.267	60.208	70,7	
	Emakumeak	2.711	4.777	76,2	11.100	15.729	41,7	12.527	16.789	34	21.385	25.878	21	47.723	63.173	32,4	
	GUZTIRA	6.661	12.186	82,9	20.448	33.162	62,2	20.784	31.663	52	35.097	46.370	32,1	82.990	123.381	48,7	%12,23

Inork gutxik espero izango eban 2007ko amaieran gaur egungo egoeran izango ginenik 2009ko amaiera honetan. Ia lana egiteko adinean egozan mallabitar guztiak lanean egotetik %10,67ko langabezi tasara pasatu gara. Egoera oraindik larriagoa da kontuan eduki behar dugulako hemen bakarrik INEMen apuntatuta dagoenak azaltzen direla eta formazio ikastaroak jasotzen dagoenak ez direla azaltzen.

Taula honetan 2008ko iraileko datuak eta 2009ko irailekoak konparatzen dira, adina eta sexua kontuan hartuta. Azaroan langabe kopurua hazten jarraitu dau eta ez da gitxiago espero abendu inguruan.

Etorkizun hurbila baltza ikusten dabe gutariko askok baina orrialde hauek ez dira fororik aproposena zergatik gertatu dan hau, eta zeintzuk izan leitezken egoera honi buelta eman ahal deutesen formulak aztertzeke. Guk, jakinda zer egoera bizi dogun, honen berri Mallabiko datuak oinarri moduan hartuta jakin arazi nahi deutesegu; bata eskualdeko datuekin eta Bizkaiko lurraldearekin konparatu dagizuezan.

Durangaldea izan da hasiera hasieratik krisi ekonomikoak gogorren astindu daben eskualdea Bizkaian, horren ondorioak sufritzen ari gara gu be. Hasieran hilabete gitxiko gauza izango zala esaten ebenek, orain zer diñue? Orain argi batzuk ikusten dirala diñuenak, zer esango dabe datorren urtean langabe tasa %20 ra igotakoan?

Ezin dogu ulertu zelan erakunde publiko batzuk gagozen egoeran egonda murriztu leikien gizarte ekintzetarako aurrekontua. Zelan mantendu geinke udalok gizarte laguntza dogun maila berean, edo handitu behar dogunean datorrigun egoera ikusita, %16a gitxiago emoten badeuskue? Zelan ulertu leikie gure herritarrek hainbesteko diru partidak bideratzea gugandik urrin sentitzen ditugun edo hainbeste polemika sortzen daben proiektuetara (Urdaibaiko Guggenheim, San Mames, AHT,...) laguntza soziala murriztu egiten dabenean?

En este cuadro tenéis unos datos del paro en Mallabia (septiembre de 2009), se comparan con los datos de septiembre de 2008 y está dividido por edades y sexo.


En septiembre el número de parados en Mallabia apuntados en el INEM y que no estaban realizando un cursillo de formación era de 65 personas. El número real por tanto es superior y ha aumentado durante noviembre y diciembre.

Dónde están l@s que decían que esta situación iba a durar unos meses? ¿Dónde estarán l@s que ahora dicen que se ha empezado a recuperar cuando el próximo año llegemos a unas cifras cercanas al 20%?

¿Cómo se puede entender que en esta situación algunas instituciones públicas recorten más de un 16% la ayuda social? ¿Cómo podrán asimilar los ciudadanos que en esta situación haya partidas millonarias para proyectos que sentimos tan alejados a nuestras necesidades como el Guggenheim de Urdaibai, San Mames, tren de alta velocidad, supersur... cuando todos los miembros en edad activa de una familia pueden estar en paro?



Laburbilduta, hainbat barri



ELIZOSTE ETA PARKEKO LANAK

Hasiak dira Elizoste kalean espaloiarene haunditze lanak igogailuak jarri dagiezan Mikel Zarateko 10 zenbakitik 14ra etxeetako bizilagunek. Hemen norabide bateko kalea izanda, pentsatu da aparkamendu gehiago lortzeko hauek moldatzea baterian aparkatu dagien. Bide batez parkeko zoluaren egoera ikusita, hau berritzeko lanari be ekin deusogu.

Herritarren batek nahi badau ikusi nondik norako lanak egin behar diren proiektua Udaleko bulegoetan dauka ikusgai.

UDAZKENEKO EURI JASAK SORTUTAKO KALTEAK

Irailaren erdi aldeko eta azaroko euriteek hainbat auzo-bide kaltetu ditu. Euren artean dagoz Urkixako bidea, Ermutik Berano Txikira doan bidea eta Berano Txikitik Asuntzara doan pista (azken honek hiru lekutan izan ditu lurjausiak). Foru Aldundiaren laguntzaren bidez konponketa lanak hasita dagoz.

ITELAZPIK LTD SEINALEA BANATZEAREN ARDURA HARTUKO DAU

EAEn eta Mallabiko lurretan Itelazpi enpresak hartuko dau LTD seinalea banatzearen ardura. Abenduaren amaierarako aurreikusita egoen itzalaldi analogikoa baina badirudi aste batzuk atzeratuko dala. Seinale analogikoa jasotzen dozenoi zuen telebista azalduko jatzue noiz amaituko diren emanaldiak, zuen telebistak egokitu dagizuezan LTDa jasotzeko.

Udalak bere aldetik orri informatibo batzuk banatu zituen abenduan zehar herritarren artean LTDaren inguruko zalantza eta galdera ohikoenei erantzunez; baita be Espainiako Gobernuak lagunduta "Pásate a la TDT" kanpainagileek bi egunetan egon ziran frontoi ondoan, zalantzak zituen herritarrei zuzenean erantzuteko. Azken hau bandoen bidez jakin arazi zan Mallabian zehar.

Abenduaren 17ko Ohiko Bilkuran aho batez onartu zan Itelazpirekin hitzarmena sinatzea bere gain hartu dagian Mallegoin dagoen errepikagailu txikia eta bere mantenua. Baldintza moduan jartzen jakue errepikagailu hau handitu behar badabe LTDko kanalak gehitzeko edo bere kobertura handitzeko, Gosiñeko deposito gainean egin dagiezela egin beharreko lanak. Holan, izan leike egoerak horrela behartuta eta LTDeko seinalea hobeto jasotzeko, Mallabiko lurretan Itelazpi LTDa zabalduko daben errepikagailua Gosiñeko ur depositoaren gainean ipini behar izatea.

ASUNTZA-DONAGARAI-EGIA BASO-PISTA

Etorri da azkenean (abenduaren 21 jaso genduen) Udalera Bizkaiko Foru Aldundiko baimena Donagaraitik Asuntzarako baso-pista egokitzeko.

Proiektua uda aurretik egoen onartuta Foru Aldundian, baina honen egoera ekonomikoa zala eta, zalantzan egon da azken ordura arte. Eta pozik egon geinkez hurrengo urteetan horrelako proiektuek ez dabe eta laguntzarik jasoko.

Orain inguru horietako lur jabeek Elkarte bat osatuko dabe. Elkarte honek baso-pista horren gestinoa egingo dau udalaren laguntzarekin. Udalaren partetik lanak konkurtsora

datorren urteko hasieran, urtarrilean bertan ahal bada, urtengo dabe.

Pista 2010ko abendurako amaituta egon behar da, hau da Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ipini daben baldintza.

ZER EGINGO DUGU TXAKURREN JABEEKIN?

Herri mailan gero eta kezka haundiagoa dago txakurren kakak parkeko belardietan eta herriko espaloietan edo futbito zelaian gero eta sarriago ikusten direlako.

Txakurrak ez du honen errurik txakurraren jabeak baino. Heziketa eta edukazio arazoa da. Noski txakurrak pasiatu behar duela baina jabea ondoan duela eta lotuta, noski txakurrak kaka egin behar duela baina jabeak plastikozko poltsa eraman dezala gainean eta bere txakurraren kaka jaso dezala.

Umeak daude jolasean parkean, umeei erakusten diegu belarra ez dela zapaldu behar, gure haurrek sarri lurrean jolasten dute, lurrean jartzen dituzte euren eskuak, lurretik hartzen dituzte gauzak eta ea nori gustatzen zaion zapata azpian txakurren hondakinak bere usain gozoarekin etxera eramatea. Hau edukazio apur batekin erres konpon daitekeen gauza da, eta bere txakurra zaintzeko gai ez dena eta txakurra eukitzeak dakarren hardurak bere gain hartzeko prest ez dagoena edo ez dakienak ez dezala eduki.

Ezin dugu jarraitu guztiok, kaskoan bizi garenok eta udalak, ez ikusiarena egiten. Denon konpromisoarekin ea arazoa konponbidean jartzen dugun.



MALLABIKO
UDALA